# jokulariak 132

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
negua 2023 invierno




AISGE
es lo tuyo
Si eres actor o actriz audiovisual,
¡HAZTE SOCIO!
No te costará nada,
Te beneficiarás de nuestra labor asistencial y formativa
Y recibirás los derechos que te corresponden
aisge
www.aisge.es
Tel. 943 271 599



132

negua
invierno
2023
**Azala** Argazkia
EAB



18



12



15

# AURKIBIDE

04 **EDITORIALA**

05 **Aurpegi berriak EABn**

12 **Sormenaren parte izan**
Esther Uria, Gaizka Chamizo, Andrea Covadonga, Libe Mendizabal, Zigor Bilbao

15 **Reactivar lo presencial**
Jon Koldo Vázquez

18 **EGINDAKO IKASTAROAK**
**Curso de iniciación a la técnica Mijail Chéjov**
Amaila Lizarralde

**jokulariak**

EAB

EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbaoeszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

**Koordinazioa eta edizioa**
Jon Koldo Vázquez
**Maketazioa, diseinua**
I. Z.
**Inprimategia**
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritzi eta artikuluak.
Recordad que esta revista es de todos y todas, y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

Editoriala

# ¿TIENE BIGOTE? ¿LLEVA SOMBRERO? ¡SEGURO QUE ES JACK!

Lortu dugu! Aurtengo laugarren Jokulariak, urtea amaitu baino lehen iritsi da zuen etxeetara. Ale berezi honek eskeintzen digun aukera batzorde berriko kideak banan-bana ezagutu ditzazuen aprobetxatu nahi dugu, eta, aldiberean, Donostia eta Bilboko bulegoetan irailean lanean hasi ziren Uzuri eta Jon Koldori aurpegia jarri ahalko diezue. Honez gain, Lege-Berriko taldekideen agur bat jasoko duzue, afiliazioak lan eta legediaren inguruan dituen zalantzei erantzuna ematen jardun diren eta jardungo diren, Mikel Sufrate eta Covadonga Covanechi.
Eta nola ez, ale hau EAB berriari aurpegia jartzera dedikatua dagoenez, azala eta erdiko orrialdeak zuenak dira, elkartearen norabidea asanbladetan hartzen dituzuen erabakien araberakoa baita.
Bestalde, lerro hauek idazten ari garela, "Sormenaren parte izan" abian da Gipuzkoako bi ikastetxeetan. Urte askotan zehar, mimo haundiz landu dugun proiektua da hau, eta aurreko edizioetan parte hartuz honen lekuko izan diren lau afiliatuen esperientzia jaso dugu.
Bestalde, SGAEk kultura urtekari berria argitaratu du. Bertan isladatzen den Euskadi eta Nafarroako zinema-areto eta antzokien egoera kezkagarria aztertu nahi izan dugu.
Azken atalean, Amaia Lizarraldek Chejov Teknikarekiko duen pasioa azaltzen digu, une honetan San Bartolomeko lokalean ematen ari den aktore-entrenamenduaren oinarria dena.
Aurrerantzean, EABren boletina betiko aldizkotasunera itzuliko da eta udaberri, uda, udazken eta neguan jasoko dituzue ohizko aleak. Gogoratu, Jokulariak-en edukia zuen esku ere badagoela eta zuen iradokizun eta ideietara irekia dagoela.
Urte berri on!

¡Objetivo cumplido! Lanzamos el cuarto Jokulariak antes de que finalice el año y aprovechamos la oportunidad que nos brinda esta edición especial para dar a conocer, una a una, a las personas que conforman la nueva junta. También podréis poner cara a Uzuri y Jon Koldo, que se incorporaron en septiembre a las oficinas de Donostia y Bilbao, y recibir un saludo de los miembros de Lege-Berri que se harán cargo a partir de ahora de las dudas laborales y legales de nuestra afiliación.
Y cómo no, ya que este número está dedicado a ponerle rostro a la nueva EAB, las páginas centrales y la portada son vuestras. Vosotras lleváis el mando; el rumbo de la asociación depende de las decisiones que toméis en las asambleas.
Por otra parte, no queríamos dejar pasar la oportunidad de revisar las preocupantes cifras que nos deja el anuario de la cultura de la SGAE y ver en qué estado se encuentra la ocupación de salas de cine y teatro en Euskadi y Navarra.
Para finalizar, Amaia Lizarralde, nos introduce su pasión por la Técnica Chejov, base del entrenamiento actoral que imparte en estos momentos en el local de San Bartolomé.
A partir de 2024 la revista de EAB volverá a su periodicidad habitual: primavera, verano, otoño, invierno y os recordamos que su contenido está abierto a vuestras propuestas.
Urte berri on!

# AURPEGI BERRIAK **EABn**



*Gure lanbiderako grinak batzen gaitu, are gehiago orain, elkarrekin lan egiten baitugu, eskuz esku, egunez egun, EABn. Hala ere, oso desberdinak gara gure artean, eta hobeto ezagutu gaitzazuen, EABko lantalde berriko kide bakoitzak bere aurkezpena idatzi du. Espazioa laburra da, eta askoz gehiago dago pertsona bakoitzaren atzean, baina espero dugu pintzelkada txiki hauekin gure taldearen kolore anitzak ikustea.*

*Nos une la pasión por nuestra profesión, más ahora que trabajamos mano a mano, día a día, en la asociación. Sin embargo, somos muy diferentes entre nosotras y para que nos conozcáis mejor, cada miembro de este nuevo grupo de trabajo ha escrito su propia presentación. El espacio es escaso y hay mucho más detrás de cada persona, pero esperamos que con estas pequeñas pinceladas podáis vislumbrar la diversidad de colores del nuevo equipo.*

**Alizia Otxoa**
Idazkari Nagusia

Aurten, lehenengo aldiz, burua eta denbora eman dizkiot EABri. Otsailean hasita, ikerketa batzordearekin, gero, kudeaketa batzordearekin eta, bien ondorioz, ekainetik hona, zuzendaritza batzordean.
Ez naiz jaioberria eta bizitzan zehar hainbat gauza ikasi dut eta kudeaketan ere, eskarmentu pixkat badaukat.
Baina, EABren funtzionamendu eta historiari buruz, asko ikasi dut aurten eta horrek erabaki du nire inplikazioa (handia esango nuke).
Hala ere, zaila da norberak zer rola jokatzen duen jakitea. Horregatik, lagun bati eskatu diot batzordean nola ikusten nauen esateko. Faena bat izanda, laguna jatorra da eta erantzun egin dit.
Zintzotasuna, pasioa eta indarra ikusten dizkidala esan dit. Uf! Imajinatu dezakezuenez, emozionatu nau baina, hori egia bada, badakit nola jarraitu.





**Patxi Pérez**
Secretario de Organización

Llevo muchos años afiliado en EAB por la sencilla razón de sentirme respaldado. Y no se trata sólo de que puedan informarme y defender mis derechos. Además, este sindicato lo considero como un espacio de encuentro, de intercambio y de formación que me permite estar al tanto de lo que se cuece en el sector.
Siempre he valorado el trabajo de las personas que durante tantos años han estado en las oficinas, tanto de Bilbao como de Donosti, y especialmente el de las personas afiliadas que voluntariamente se han ido presentando a las distintas Juntas que se han ido formando a lo largo de todos estos años.
Quizás, ni lo sabía, ni lo tenía previsto, pero a raíz de las últimas asambleas había algo muy evidente que me empujaba a dar un paso más. Y eso tan evidente era que no podía quedarme indiferente. Indiferente al dolor y a la frustración de una compañera que estaba denunciando una situación verdaderamente incómoda y desagradable para ella. Este ha sido para mí el foco de alarma, lo suficientemente importante para darme cuenta de que no bastaba con un o unos simples toques de atención. En el poco tiempo que llevo siendo miembro de esta Junta si hay algo que voy aprendiendo, es que lo que de verdad importa es nuestro sindicato: sus logros, grandes y pequeños. Gracias a todas las personas que nos estáis apoyando en esta nueva etapa.

**Marijo Gonzalez**
Finantza Idazkaria

Sindikatuarekin dudan harremana urrundik dator. Arrazoi pertsonal edo profesionalengatik ez nuen Batzordeko kide izatea erabakitzen. Eta aurten erabaki dut! Bizi izan dugunagatik ez ezik, afiliazioagatik eta orain arte lortutakoagatik ere bai.
Lan eder honetan zerbait ikasi badut, amore ez ematea da. Horrek bultzatu nau lehenik Kudeaketa Batzordeko kide izatera eta gero Batzorde berrian sartzera.
Hilabete batzuk daramatzagu. Talde-lana baloratzen dut gehien eta, jakina, taldea osatzen duten pertsonak. Haiekin elikatzen naiz egunero, gozatzen eta ikasten.
Jolasa da gure lanbidearen funtsa, eta jolas horretan inplikatutako batzorde osoa gaude afiliazioaren defentsan.
Eskerrak eman nahi dizkiet urteetan bertan egon diren pertsona guztiei lortutako lorpenengatik.





**Rakel Ezpeleta**
Zinema idazkaria

Kaixo! Azken batzar orokorrean batzorde berria osatzeko beharra eta aukera agertu zenean, afiliatu batzuek hautagaiak ez zenituztela ezagutzen komentatu zenuten. Momentu hartan ez zegoen aukerarik: aurkeztu ginen boluntariook ala sindikatuari agur. Orain hemen gaude, zuen zalantzei erantzuna eman nahian. Hemen nago nire burua aurkezten: Rakel, aktorea eta abeslaria. Ikertzaile eta idazlea ere (pasa den astean Antzerkiko Ikasketetan Doktorautza atera nuen. Azkenik! Iepa!). Lau antzezlan zuzendu ditut. Sortzaile, berez. Ekoizpena eta kultur kudeaketa egitea ere tokatu zait noizbait. “Culo inquieto” esango luke norbaitek. “Precaria” diot nik. Gasteizkoa. Hainbat lekutan bizi izana. Bartzelonan urte dexentez. AADPC sindikatuan bazkide 2008 geroztik. EABko bazkide 2020tik. Elkarrekin indartsuago! Aurtengo ekainetik, EABrentzako eta sektorearentzat lan egiten musutruk, umorez eta amorez.
Aktore bezala, zinema gehiago egin nahi dut. Hortan, proiektu pertsonal bat hasi dut. Salsa dantzatzen gozatzen dut. Animaliak maite ditut. Ekosistemak baita. Donostian pisua izatea nahiko nuke. Edonon pisuren bat erosi ahal izateko gai izatea nahiko nuke. Seme-alabarik gabe… ¡Ay, no, que no es Bumble! Me he liado…

**Nazaret Froufe**
Arte Eszenikoen Idazkaria

Nik neuk, neure buruaz einbiot berba? Ai ama! Naza, zelan sartu za saltsa honetan? Jo, ba beitu, Euskal Herrira itzuli berri nengoen zazpi urte luzeren ostean. (Beste gauza askoren artean, COVIDak denboraren erlatibitatearen teoria frogatzeko etorri zaigula emoten dau) Nahiz eta urrunetik, beti jarraitu ixen dotaz EABren mugimenduek. Banekien zerbait gertatzen ari zala. Ez nekiena zan super heroien bila ari zanik. Hemen super Naz al rescate! Ai ama, bañe zer eingot nik baaaa? Ez naiz beste edonor baino gehixau, indartsuau edo azkarrau… zelako bertigue! Bañe EABK behar zaittu Nazaret et et et! Bestelan pikutara doie. Ez, hori ez! Kaguen… erromantika bat zara, idealista hutse! Baliteke teke, teke, teke. Bañe, itsusiegia iruditzen jata gure euskal aktoreon elkarte hau ondoratzen uztie. Hainbeste pertsona urteetan aurrera eraman ixen daben estandartie sutean erreten uztie, ez! EABtarrok Nazaret Froufe nauzue, berriztarra, antzerkilari amorratua, zerotik hasten *once again* baina aurrera egiteko gogo itzelekin. Hemen eta han ikesi dot, honetan eta honekin ein dot lan. Baina orain hemen nau eta jolasteko prest! Gehiago jakin gure badozue gure web zoragarrixera jo jo jo!!





# EABko BULEGOAK

**Uzuri**

Kaixo! Zuen artean lanean daramazkiten asteetan ilusio berriak piztu zaizkidala esatera nator lehenik eta behin. Ni administrazio arlotik nator, sektore ezberdinetan lan egin dut urte askotan, eta aktoreek zuen lanerako duzuen pasio eta irrika ez ditut beste inon topatu.
Antzerkia orain arte gutxi (ezer ez esatearren) ezagutzen nuen eta, orain, eremu eta bizikidetzako arlo ezberdinetan moldatzeko lan tresna izugarria iruditzen zait. Hainbat lan eta proiektu ikusteko ilusio handiarekin nago!
Donostiko Euskal Herriko Unibertsitatean zuzenbidea ikasi eta gero, EEBBetan giza baliabideen arloan murgildu nintzen nere lan esperientzia sakontzeko. Bertan 10 urte igaro nituen, azkeneko 7ak New Yorkeko ongizate arloko bulego baten arduradun gisa, bertako bezero, langile eta adminitrazio orokorra zaintzen.
Oraingoan, nire esperientzi eta ezagutza, zuen artean eraiki eta mantendu duzuen komunitate hau indartu, hazi eta aberasteko erabili nahiko nuke.
Eskerrik asko zuetako askok iada eman didazuen harreragatik, elkar ikusiko garelakoan, besarkada bat.

**Jon Koldo**

Afiliatu agurgarria, Izugarri pozten nau EABk Bilbon duen bulegotik zuengana jotzeak. Hogei urte eman ditut afiliatuta. Esperientzia handia izan dut, bai interpretazioaren arloan, bai antzerkiaren ekoizpenean eta banaketan, eta oso ilusionatuta nago gure aktore-komunitatea are gehiago indartzen laguntzeko aukerarekin.
Asoziazionismoari lotuta ere egon naiz. Azken hiru urteotan Artekalen lan egin dut nazioarteko gaien arduradun gisa, eta horri esker harreman sendoak sortu ditut industriako hainbat eragilerekin, erakunde publikoak, ekoizleak eta beste elkarte batzuk barne, eta gure sektorearen funtzionamenduari eta haren erronkei buruzko ezagutza baliotsua eman dit.
Orain, ezagutza hori euskal aktoreen interes eta beharrekin lotzea dagokit, eta, nola ez, EABko aurreko kudeatzaileek egindako lanetik ikastea. Hemendik eskertu nahi dizuet ematen didazuen aukera. Gure komunitatea indartzeko, gure eskubideak defendatzeko eta afiliatu guztien hazkundea eta oparotasuna sustatzeko lan egiteko konpromezua hartzen dut.
Telefonoaren beste aldean naukazue nahi duzuenerako, eta Bilbaoeszenatik pasatzen bazarete, bulegoko atea jo. Nahiago ditut bisitak mezu elektronikoak jasotzea baino. ;-)
Urte askotarako!



# ASESORAMIENTO LABORAL

**Lege-Berri**

Pensando en la mejor manera de reestructurar el trabajo y los cometidos de EAB para con su afiliación en esta nueva etapa, creímos conveniente adjudicar las funciones de administración, comunicación y asesoría jurídica a personas diferentes. Por tres motivos principales: uno, repartir más equitativamente el volumen de trabajo de cada cometido y cada trabajador(a); dos, repartir la responsabilidad; tres, facilitar la transparencia. Así, optamos por externalizar la asesoría jurídica. Y entre todas las opciones que barajamos, cuando conocimos a Mikel y Cova, vimos claro que eran la mejor opción, por su predisposición absoluta al trabajo, a la labor sindical, a la apertura y a ir adaptando y afianzando sobre la marcha esta colaboración. Confianza, es lo que emanan.

Somos Mikel Sufrate y Cova Santos, abogados y miembros del despacho Lege-Berri Abogados, fundado en Bilbao en el año 1975, que está formado por un grupo de jóvenes abogados que quiere ejercer su profesión de un modo distinto; volcándose en defender los intereses de los sectores populares. Orientado de modo fundamental al derecho laboral de trabajadores, pero sin olvidar otras áreas legales con interés social y aspectos innovadores del Derecho.

Mikel Sufrate Abasolo abokatua jurisdikzio sozialeko epaitegietan eta lan arloko legezko gai guztietan aditua da, negoziazio kolektiboan esperientzia duena.

Por otro lado, Covadonga Santos Manzanares es experta en el asesoramiento laboral, fiscal y contable, así como en lo relativo a la seguridad social y desempleo.

Bien artean, EABren barruan sor daitezkeen lan-gai guztiak lantzen dituen diziplina anitzeko talde bat osatzen dugu, beraz, pozik ebatziko ditugu bazkideei sor dakizkiekeen zalantzak.

# NOR DA NOR

Hartu betaurrekoak eta arkatza... eta jolastera!
Zenbat afiliatu ezagutzen dituzu? Nola dute izena?
Zure argazkitik hasita ibilibide bat marraztu ezazu lan egin duzun lankideak jarraituz. Zer animalia-forma hartu du marrazkiak?
Eta orain... asmatu zure jokoa, jokulariak baikara!



# QUIÉN ES QUIÉN

Coge gafas y lápiz... ¡Y a jugar!
¿Cuantas caras conoces? ¿Cómo se llaman?
Comenzando desde tu fotografía dibuja un recorrido siguiendo a lxs compañerxs con los que has trabajdo. ¿El dibujo que ha surgido tiene forma de animal?
Y ahora, jokulariak, a crear vuestro propio juego... (Vaya, en castellano no tiene tanta gracia...)





Aurtengo Sormenaren Parte Izan proiektuaren partaideak. Zutik ezkerretik, eskubira: Amaia Ruiz de Galarreta, Garazi Urkola, Esti Curiel (zuzendaria), Miren Gojenola, Nazaret Froufe (zuzendaria), Tania Fornieles eta Juanma Rodriguez. Belauniko, ezkerretik, eskubira: Naiara Arnedo, Josune Goristegi, Gaizka Sarasua eta Jox Berasategi. Ate atzean, ezkutatuta: Nerea Gorriti. Argazkia **Edu Errondosoro**

# SORMENAREN **PARTE IZAN**

Berri onak ditugu: 8 urte eta gero, Sormenaren parte izan proiektuak bizi-bizirik jarraitzen du, bai Gipuzkoan eta bai Bizkaian! Eta zertan datzan azaltzeko, Esther Uriak, proiektuaren sortzaileak, sarrera labur bat idatzi du. Ondoren, afiliatu batzuek beren esperientzia kontatuko digute. Eskerrik asko guztioi aldizkariaren erredakzioan parte hartzeagatik!

## ANTZERKIA TRESNA BITARTEKARI GISA

2017tik orain arte, "Sormen prozesuaren parte izan" proiektuaren 11 ekimen egin dira, EABk bultzatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzaz 8 eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzaz 3. DBHko 3. mailako zentroetan garatzen den proiektu artistiko-pedagogiko honen helburuak bi ildotan doaz: publiko berrien garapena eta nerabeen errealitateko bizikidetzako korapiloak aztertzea antzerkia tresna bitartekari gisa erabiliaz. Talde artistiko baten eta ikasle gela baten lankidetzan oinarritzen den sorkuntza bat da. Beraz prozesua nerabeen ahotsa entzuteko espazio garrantzitsua bihurtzen da. Ikasleak prozesuaren beraren protagonista bihurtzen dira, sorkuntza beren intereseko gaietatik, ideietatik, iritzietatik eta ikuspuntuetatik abiatzen baitira. Hori ikasleek beraiek egiaztatzen dute, esperientzia honetatik beren intereseko gaiei buruz beste modu esanguratsu batean ikasten dutela esaten baitute. Pertsonaiekin zuzenean hitz egiteko, haiekin sentitzeko eta rol batzuk akzioan esperimentatzeko aukera ematen die, enpatiako elementuak garatzeko aukerak areagotuz. Ekimen bakoitza bakarra, berezia eta bizia izan da. Altxor desberdinak aurkitzeko aukera ematen duen bidai bat da niretzat. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi. Jarrai dezagun.

**Esther Uria**

# ANTZEZPEN ERALDATZAILEAK





Gaizka Chamizo, Andrea Covadonga

Antzerkia gizarte eraldatzailea den herraminta bezala ulertu izan dut beti, hezitzailea alegia, horregatik asko baloratzen ditut mota honetako proiektuak. Oso adin transformatzailean dauden nerabeen hezkuntzan esku hartzea, aste betez baino ez bada ere, zeharo aberasgarria da norabide guztietan.
Beraien kezkak abiapuntu bezala hartzen ditugu eta beraiekin batera, kezka horiek mahaigaineratu eta gorpuzten ditugu. Ondoren irtenbide bat emateko bidea eraikiz, edo behintzat errealitate horiek antzerkiaren bitartez birrasmatzeko saiakera eginez elkarrekin. Eta hori asko da. Beraientzat ez ezik, guretzako ere, gizaki aktibo bezala oso hezitzailea da. Askotan heldu bezala txikikeritzat hartzen ditugu gaztetxoen arazo edo kezkak, baina beraien unibertso horrekin bat egitean, ustezko kezka xume hauek beren bizitzetan duten eragina erdigunean jarriz, pertsona hauek hobeto ulertzeko gaitasuna areagotzen dute eta bide batez, bizitzaren heterogeneitateaz hobeto jabetuarazten digute.
Bai aktore zein pertsona bezala hazteko, esperientzia eta prozesu oso aberasgarria den proiektua da hau.
**Gaizka Chamizo**

Proiektu honetan parte hartu nuen lehen aldia 2017an izan zen, Bidebietan. Ez nekien oso ondo zer zen, ezta non sartzen ari nintzen ere, baina bai lehenego bileran, baita Marga Altolagirrerekin egindako lehen saioari esker, jakin nuen proiektua oso beharrezkoa zela ikastetxe guztietan, baita proiektuan parte hartzen genuen aktoreentzat ere. Nerabezaroko ni-arekin konektatu ninduen eta garai hartan ulertzen ez nituen portaerak ikusarazi zizkidan. Ikasleen kasuan, landutako ariketa guztiak oso ondo datorkie eta, batez ere, azken emaitza ikustea. Askok eskerrak ematen zizkiguten, landutako egoera askotan islatzen baitziren. Honek hainbeste poztu ninduenez 2022an proiektu honetan berriro murgiltzea erabaki nuela. Aitortu beharra daukat, ez dudala baztertzen ahal dudan guztietan berriro aurrera eramatea. Gora Sormen prozesua eta gora antzerkia.
**Andrea Covadonga**

Elkarlana, interesa, bizikidetza, urduritasuna, laguntza, emozioa, agobioa, estresa, barreak, ilusioa, bulnerabilitatea, amesgaiztoak, beldurrak… hauek dira Gipuzkoako “Sormenaren parte izan” egitasmoan parte hartu dudan hiru alditan bai ikasleek, zuzendariek eta aktoreok bizi eta landu ditugun emozio eta gaietako batzuk.





Libe Mendizabal, Zigor Bilbao

**DEIALDIEN IRIZPIDEAK**
"Sormenaren parte izan" proiektuaren helburuak, gazteentzat artistiko-pedagogikoak badira ere, EABrentzat, gure afiliatuei lan-eskaintza profesionala zabaltzeko aukera bat da. Horregatik, eta lan-banaketa ahalik eta zabal eta gardenena izan dadin, hemendik aurrerako edizioetarako partehartzaileak hautatzeko irizpideak zehaztu eta jakitera eman nahi dizkizuegu: Deialdi bakoitza publiko egingo da, datak eta ordainsaria zehaztuz. Komisio batek aukeratuko ditu zuzendariak eta aktoreak hautagaien zerrendatik, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta baloratuz. Komisio hontan, proiektuaren koordinatzailea, Esther Uria, EABko bi langile, Uzuri eta Jon Koldo, eta hautagaia ez den EABko batzordeko kide bat egongo dira. Aurretik parte hartu ez dutenei lehentasuna emango zaie.

Dakizuen bezala, egitasmo honen helburua, ikasle/nerabeen beldurrekin, kezkekin, ametsekin,... ikastetxe bakoitzean antzezlan labur bat sortzea da. Pertsona eta aktore bezala ikasi eta bizi izan dudana, zaila da hitzekin azaltzea, baina hori denez nire gaurko helburua, bi asteko bidai zoragarri bat izaten dela esango dizuet, kanpotik, eta, batez ere, barrutik aldatzen gaituena.
Aktore eta zuzendarien eskuzabaltasuna funtsezkoa da ekimen honetan, denak itsasontzi berdinean baigaude eta naiz eta nerabeen arazo eta beldurrak landu egitasmo honetan, guztiok ditugun antzeko beldurrak dira eta hori saiatzen gera antzezlanean azaltzen. Zalantzarik gabe, berriz parte hartuko nuke!
**Libe Mendizabal**

"Neska-mutil zailak dira" "Zakarrenak egokitu zaizkizue, askok ez dute euskaraz hitz egiten". Hori izan zen Bilboko IES Ibarrekolanda institutuko irakasle batzuek esan zidatena, egun horietan haiekin landuko genuena azaldu bezain laster. Ikasgelarako eskailerak igotzen ari nintzela, Clarice Starling bezala ikusten nuen neure burua psikiatrikoko pasiloan barrena, Hannibal Lecter doktorearekin lehen aldiz topo egiteko, eta berak Lecter munstro beldurgarri bat bezala imajinatzen zuenez, haiek Mentes Peligrosas Bronxeko ikasleak bezala imajinatzen nituen. Berandu heldu nintzen lehen egun hartan eta hiru Handi aurkitu nituen: Getari Etxegarai, Aitor Borobia eta Aitor Fernandino. Haien inguruan, eta Bronxeko ikasleak ziruditen arren, harriduraz, begirunez eta herabetasunez mintzatzen entzuten zituzten. Hurrengo bost egunak oso argigarriak izan ziren niretzat. Haiekin talde-ariketa desberdinak egin genituen, eta horietatik irudiak, esaldiak eta esperientzia pertsonalak atera genituen, geroago azken egunean aurkeztuko genuen antzezlanean erabili genituenak.
Haien sormena ingurune sozialak, beren propiozepzio pertsonalek eta lotsak mugatzen zuten, eta denbora luzean norbaitek lehen aldiz benetan entzuten zituztela konturatu ziren. Guri beste inori kontatu ezin zizkioten pentsamenduak kontatu ahal zizkigutela.
Askotan entzuna nuen antzerkia tresna hezitzailea izan zitekeela, baina inoiz ez nuen hain argi ikusi.
**Zigor Bilbao**





# REACTIVAR LO PRESENCIAL

El pasado 23 de Octubre la Fundación SGAE presentó el Anuario SGAE 2023 de las Artes Escénicas, Musicales y Audiovisuales, que ofrece las principales cifras estadísticas para conocer el comportamiento del sector cultural y los hábitos de consumo en 2022, así como su evolución en comparación a los años anteriores.
Los datos que se extraen del anuario confirman que a lo largo de 2022 se ha mantenido el proceso de recuperación iniciado tras la crisis de la Covid-19, destacando el caso concreto de la música popular, cuya recaudación ha superado los ingresos pre-pandémicos de 2019. Sin embargo, la recuperación sigue sin ser completa en el campo de las Artes Escénicas, la música clásica y el cine.
Desde EAB hemos querido fijarnos en las cifras que más nos conciernen, las de la oferta e índice de consumo cultural en Euskadi y Navarra, y el calificativo que mejor puede sintetizar la situación en la que nos encontramos es el de: "preocupante".
Comenzamos con las artes escénicas centrándonos en la primera disciplina de la que ofrecen detalle: el teatro "(incluyendo también en la disciplina el circo, el teatro de marionetas, las lecturas dramatizadas, etc.)".
En 2022, el número de representaciones teatrales en Euskadi fue de 2.155, mientras que en Navarra fue de 644. En ambos casos, un 15 % más que en 2021. Podríamos alegrarnos, pero la realidad es que el volumen de trabajo de las compañías no consigue llegar ni de lejos a las cifras pre-pandémicas. Si comparamos esas cifras con las de 2019, el número de representaciones cayó un 33 % en Euskadi y un 25 % en Navarra.

**REPRESENTACIONES DE TEATRO POR CCAA**

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Navarra | 852 | 849 | 849 | 417 | 558 | 644 |
| País Vasco | 2.674 | 2.726 | 2.770 | 1.380 | 1.872 | 2.155 |



# ANUARIO SGAE DE LAS ARTES ESCÉNICAS, MUSICALES Y AUDIOVISUALES 2023

Si a esta realidad le sumamos que las compañías se han visto obligadas a disminuir el número de intérpretes en escena para poder seguir siendo competitivas en un mercado cada vez más pequeño, es fácil llegar a un diagnóstico que la gran mayoría de nuestra afiliación ya ha percibido en sus propias carnes: cada vez es más difícil subirse a un escenario. La contratación por cuenta ajena ha disminuido tanto que muchos intérpretes se ven obligados a autoproducir piezas pequeñas y representarlas en otros circuitos o necesitan realizar otro tipo de trabajo para poder llegar a fin de mes. Pero, ¿Es ésta la realidad que nos espera en un futuro próximo? Tal vez las cifras del público asistente a esas representaciones nos dé alguna pista.

Vamos, pues, con la bofetada que nos proporciona los datos de asistencia de público. Si en 2019 en Euskadi la oferta teatral atraía a 888.808 personas y en Navarra a 134.779, en 2022 las cifras merman a unos 429.790 y 69.078 asistentes respectivamente en cada comunidad. El público se ha reducido en un 50 %. Los teatros están vacíos. Y lo curioso es que la recaudación no ha bajado tanto, en Euskadi es un 42 % menor que en 2019 y un 39 % menor en Navarra. Los teatros han tenido que subir el precio de las entradas para hacer frente a la poca asistencia de público y al encarecimiento de los recibos energéticos. Si bien es cierto, esta subida dista de la evolución al alza del IPC en otros sectores y esto se debe, en gran parte, a las medidas proteccionistas de las instituciones.

## ESPECTADORES DE TEATRO POR CCAA

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Navarra | 134.691 | 134.462 | 134.779 | 34.285 | 59.036 | 69.078 |
| País Vasco | 838.923 | 864.033 | 888.808 | 21.1551 | 339.423 | 429.790 |



Argazkia **Euronews**

Los datos en torno a la danza y las obras líricas son aún peores. Aprovechamos estas líneas para solidarizarnos con los y las profesionales de ambas disciplinas.

El apartado audiovisual es más complejo de analizar, pero si lo hacemos desde la perspectiva de nuestro oficio, las cifras pueden llegar a ser más amables. Un 28,3 % de las películas exhibidas en las salas de cine del Estado en 2022 son de procedencia española, casi empatando con la de films estadounidenses que se sitúa en un 30 %. Y es una tendencia que ha superado las cifras de 2019 cuando se exhibía tan solo un 22 % de cine español. Aun así, el público prefiere consumir el cine "yanqui" y es difícil encontrar productos estatales entre los taquillazos del año. Además, los índices de asistencia son igual de preocupantes que los del teatro.

La tendencia más positiva, sin duda, es la de la oferta y consumo de ficción producida en el Estado en televisión y, sobre todo, en las plataformas de pago. Los números van al alza. El siguiente paso sería ver si las actrices y los actores euskaldunes forman parte de los elencos de estas producciones. Parece que los incentivos fiscales de Navarra, Bizkaia y pronto los de Gipuzkoa, están consiguiendo atraer la producción tanto de cine como de series. Pero… ¿Esto incide en el nivel de contratación de intérpretes locales? En una pequeña parte creemos que sí, pero deberíamos realizar un estudio al respecto.

Os recomendamos leer el anuario con detenimiento para que saquéis vuestras propias conclusiones. Ahora nos toca mirar hacia los espacios de exhibición escénica y fílmica cuyo público no termina de recuperarse. Es momento para la reflexión y para hacernos preguntas. Tal vez la más constructiva sea la siguiente: ¿Qué podemos hacer los intérpretes para que el público vuelva al teatro y a las salas de cine? Démosle al coco, tal vez se nos ocurra algo…

**Jon Koldo Vázquez**

Fuente
https://anuariossgae.com/anuario2023/home.html



Amaia Lizarralderen kurtsoko ikasleak San Bartolomé kalexkako lokalean

# CURSO DE INICIACIÓN A LA **TÉCNICA MIJAIL CHÉJOV**

Delante, atrás, gesto, emoción... arriba, abajo… coger, tirar, lanzar, irradiar… respiración, espacio… foco, acción, moldear… ¡concentración! Ocho semanas responsable de que l@s intérpretes crean, entiendan y asuman que "la preparación es un estado constante de entrenamiento, para que cuando se presente el momento, un@ está preparad@ para hacer lo apropiado".
Y así comienzo a impartir el Curso de Iniciación a la Técnica Mijail Chéjov en EAB, llena de pudor pero intentando contagiar mi pasión por Chéjov y explorando el mundo inagotable de la imaginación. Imaginamos con el cuerpo y desarrollamos, a través de sus ejercicios psicofísicos especiales, la concentración, la atención y la presencia. La técnica nos ayuda a romper ataduras, explorar nuevas formas y a desarrollar la capacidad de imaginar.
En 1996, siendo aún alumna de Layton, conozco la técnica Chejov gracias a Jose Luis Gómez y en 1997 inicio mi aprendizaje en el Teatro de La Abadía, de la mano de sus directores: Jose Luis Gómez y Rosario Ruiz Rodgers. A lo largo de mi estancia en ese teatro, profundizo en el conocimiento de la Técnica con prestigiosos maestros como Joanna Merlin (Fundadora de Mijail Chéjov Institute), Per Brahe (Co-fundador de M.C.I) o Mala Power y Lenard Petit (Dtor artístico de M.C.Institute). Quedo totalmente abducida por esta técnica Chejoviana en la que se rechaza el naturalismo y practico todo tipo de ejercicios y escenas, gestos psicológicos…; pero la televisión me reclama y abandono La Abadía para comenzar una bastante larga trayectoria como actriz en series nacionales, entre ellas, Hospital Central.
Así que, con el conocimiento adquirido y mis apuntes de Chejov, me dispongo, diariamente, a preparar mis secuencias para la televisión. Ya había aprendido que nuestro poder reside en la habilidad que tengas para comunicar a través del imaginario, así que tengo que ponerme a hacer



Amaia Lizarralde kamara aurrean lan egiten. Fotografía **Anita Manzanas**

miles de ejercicios psico-físicos para despertar mi creatividad, buscar el gesto psicológico del personaje… trabajo las acciones, busco e investigo con cualidades diferentes, tempos, intensidades, deseos... Constato, también, que lo que dispara las emociones puede estar fuera del mundo privado y esto me obliga a pensar en el espacio que me rodea, el que rodea a mi personaje. Pienso en la respiración y en el movimiento, casi como lo haría un coreógrafo o un bailarín. También reconozco que al sumar las cualidades y las atmósferas al movimiento, éstas me llevan a las sensaciones y provocan las emociones y todo empieza a fluir en mi cuerpo. Lo tengo: imaginación + atmósferas + cualidades= emoción.
¡Perfecto! Ahora la técnica empieza a convertirse en movimientos internos, externos, ritmos… Acción= gesto + poder volitivo...
Y ahí empieza mi viaje y mi compromiso con la técnica y el hábito en ella. La empiezo a entender y siento que me permite crecer e ir más allá de mis lugares habituales y me libera de juicios y miedos. ¡Ah!, además recibo en 2003 el Premio Besarkada a la Mejor Intérprete de televisión... ¡Me quedo con Chéjov!;-))
Así que ahora, después de muchos años de trabajo y estudio, decido compartir mis conocimientos, con el objetivo no sólo de practicar las herramientas actorales de Chéjov, también con las ganas de que conozcamos junt@s ese mundo lleno de posibilidades que nos dejó Chejov y con la intención de que como intérpretes iniciemos nuestro propio camino creativo, que va más allá de lo que proponga la obra, de lo que se pueda decir la dirección y que podamos desarrollar nuestras capacidades de expresividad. Siempre disfrutando en la búsqueda de los ensayos, proponiendo, arriesgando y jugando. La inspiración es muy caprichosa y por eso los intérpretes debemos tener una sólida técnica en la que apoyarnos. Una técnica que debemos conocer, para luego olvidar, “saber hacer” para luego “saber ser”.
Cuando terminemos este primer taller ofreceremos la posibilidad de continuar profundizando en diferentes dinámicas de la técnica, orientadas a la construcción del personaje, destinado a creadoras con o sin conocimiento previo de la técnica Chejov, que quieran trabajar en su imaginación y concentración.
Gracias EAB por darme apoyo y aliento en el momento que decido compartir mis conocimientos con la profesión, y a las actrices y actores que durante estas semanas trabajan, ríen y comparten su pasión por la interpretación conmigo. Mila mila esker!
**Amaia Lizarralde**




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bilbao

aisge
FUNDACIÓN

bilbo eszena